

# Harlax, Emakume Makilatua

goizero ispilu aurrean  
ezpainak, begiak, masailak,  
makilatzen ditut itxuan  
oinazea estali nahian.

lantokian, kaleetan  
irrifar behartuak,  
dena ondo dago inguruan  
dena gaizki ote nire buruan?

goizetan ispiluan makilatua,  
kalera polit makilatua,  
zuentzat soilik makilatua,  
emakume makilatua!

gauero berriz etxean  
makilatzen duzu ene duintasuna  
zer izango ote da  
gaizki egin dudana oraingoan?

telebistan, egunkarietan,  
jadanik ez da berria,  
beste emakume bat izan da  
gizarteak eraila.

gauetan sukaldean makilatua,  
ohera ubel makilatua,  
zu gatik beti makilatua,  
emakume makilatua!